

MIKRO-IPUIN LEHIAKETA 2018-2019: ARAUAK

1. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan Nafarroa Garaiko A (edo B) eta D ereduak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta Baxe Nafarroa, Zuberoa, eta Lapurdiko eskolako eta kolegioetako ikasleek har// dezakete parte.

2. LANAK

Parte-hartzaile bakoitzak idazlan bat aurkeztu ahalko du, gehienez **100** hitzekoa. Ipuinak originala izan behar du, argitaratu gabea eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabea.

3. KATEGORIAK

Sei kategoriatan antolatu// da lehiaketa: D ereduak Lehen Hezkuntza, A (edo B) ereduak Lehen Hezkuntza, Iparraldeko Lehen Maila (eskolak), D ereduak Bigarren Hezkuntza, A (edo B) ereduak Bigarren Hezkuntza eta Iparraldeko Bigarren Maila (kolegioak).

4. LANAK ENTREGATZEKO BIDEAK

Irakasleak edo arduradunak talde bakoitzaren lanak bildu eta 2018ko abenduaren 21a bitarte Euskokultur Fundazioari helaraziko dizkio. Horretarako bi bide daude:

1. AUKERA: Posta elektronikoz, mezu bakar batean erantsiz:

- Alde batetik: lanak, orrialde bakoitzeko bat. PDF formatuan, goitizenez sinatuak eta egileen datu pertsonalik adierazi gabe.
- Eta bestetik: aparteko eranskin batean: datuen fitxa beteta (www.euskokultur.eus webgunean eskuragarri).

2. AUKERA: Postaz igorri edo egoitzan entregatu, gutun-azal handi baten barruan sartuz:

- Alde batetik: lanak, orrialde bakoitzeko bat. Eskuz idatziak, fotokopiatuak edo mekanografiatuak izan daitezke, baina beti goitizenez sinatuak. Orri hauetan ezin da egileen datu pertsonalik agertu.
- Eta bestetik: aparteko gutun-azal txiki batean, datuen fitxa beteta (www.euskokultur.eus webgunean eskuragarri).

5. HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaia Aingeru Epaltza, Inma Errea, Itziar Diez de Ultzurrun, **Jon Abril** eta **Fertxu Izquierdok** osatuko dute. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahai horrek aukeraketa egingen du. Deliberoa 2019ko martxoan ezagutaraziko da, Euskokulturren webgunean eta komunikabideen bitartez. Deliberoari ezinen zaio helegiterik jarri.

6. SARIAK

Kategoria bakoitzeko irabazle bat izanen da, eta Pamiela Argitaletxearen liburu sorta jasoko du opari. Horrez gain, epaimahaiak egoki deritzen ohorezko aipamenak egin ditzake. Halere, sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta - epaimahaiaren irizpidearen arabera- idazlanek behar bezalako merezimendurik ez badute. Bestalde, epaimahaiak erabakiko du zein ikastetxetan egingen den ikasle, irakasle eta artista gonbidatuarekin ospatu ohi den sari banaketaren ekitaldia. **Edizio honetako** gonbidatu berezia **SUSTRAI COLINA bertsolaria** izango da.

7. ZABALKUNDEA

Aurkezturiko idazlanak Euskokulturren eta Pamielaren esku geratuko dira. Fundazioak bere webgunean edo beste komunikabide edo euskarritan argitaratu ahal izanen ditu, egilea eta eskola aipatuz betiere. Era berean, Euskokulturek eta Pamielak **lehiaketako sari emate ekitaldietan** eginiko argazki eta bideoak erabili ahal izanen dituzte.

8. OHARRAK

Araudi honetan aurreikusi gabeko edozein arazo ebazteko eskumena epaimahaiak izanen du. Aurkezturiko obren kopurua espero baino handiago izatera, atzerapena izan liteke, epaimahaiak ipuinak irakurtzeko eta aztertzeko aski denbora eduki dezan. Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakiak erabat onartzea dakar berarekin.

9. HARREMANAK

Lanak aurkezteko, informazio gehiago eskuratzeko edota zalantzak argitzeko, Euskokultur Fundazioarekin harremanetan jartzeko bideak honakoak dira:

EUSKOKULTUR MINTEGIA.

Baratzeetako zeharkalea 2, behea. 31014 Iruñea.

Tfnoa: 00 34 948 14 18 12.

E-posta: mikroipuinak@euskokultur.eus